

AGUR ETA DOLORE



KAMIKAZ KOLEKTIBOA ETA TTAK TEATROAK

elkarlanean sorturiko lana.

2018an, Pabellon 6ko teatro laburreko jardunaldietan estreinatua,
bertan euskarazko lan onenaren KRISEILU saria eskuratu genuelarik.

SINOPSIA

Zu eta ni. Bidegurutzean bi harri koxkor. Nola egin aurrera? Norantz jo?

GAIA

Bi emakume sorkuntzaren aurrean. Kultura eta bere pisua, bere eragina.
Eta bakoitzaren barne mamuak... Nora garamatzate?

Energetikoki oso indartsua eta bizia den lana. Komedia. Eztanda. Bi aktoreren eta soinean jarritako maskaren jolasa eta konexioa agerian geratuko dira etengabeko sorpresa eta ezustekoen artean. Publikoarentzat esperientzia ahaztezina.

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Amancay Gaztañaga

Aktoreak: Miren Gaztañaga eta Iraia Elias

Testua: Lan taldea

Kartela: Amancay Gaztañaga

BEHAR TEKNIKOAK

Jolasteko espazio minimoa 5x4. Hortik aurrera edozein espaziotara egokitu gaitezke.

Publikoa: 10 urtetik aurrera, kontuan izanda helduentzako obra bat dela.

Iraupena: 20 min

TALDEEI BURUZ...

<https://kamikazkolektiboa.com/>

<https://ttakteatroa.wordpress.com/>

PRENTSA

https://www.berria.eus/paperekoa/1878/035/001/2018-04-07/haize_freskoa.htm

https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2018-07-01/hemeroteca_articles/ene-zestoa

KONTAKTUA **ira80@hotmail.com/652767806**





Argazkiak: Ainhoa Resano

NORTZUK GARA?

Miren Gaztañaga (1979 Orereta). Txiki-txikitatik sentitu izan du bere burua sormenarekin guztiz harremanean. Arte Ederretan lizentziatu zen. Antzerkiola Imajinarioko kideekin elkarlanean hasi zen 1.999an. Hura izan zen bere lehenengo eskola, bertan hainbat lan eginez: *8 Olivetti poetikoak*, *Mundopolski: erreboltaren ziaboga*, *Yuri Sam. Otoitza*. Bidean talde desberdinekin lan egiteko aukera izan du, horien artean Arriaga antzokiak ekoiztutako eta Calixto Bieitok zuzendutako *Obabakoak* antzezlanean, Tanttakaren *Uda gau bateko ametsa* eta *Komunikazioa-Inkomunikazioa* lanetan eta Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu taldeekin *Errautsak* antzezlanean, besteak beste. Telebistako proiektu maiteenak *Martina* eta *Aitaren etxea* izan dira. Zineman *Igelak* eta *El guardián Invisible*. Sorkuntza pertsonalarena ezinbestekoa duen esparru bat da beretzat: laborategia, etxeko sukaldea, jolasteko aukera gehien ematen duen txokoa eta sortzaile bezala hazteko eremu nagusia. Sortutako lanen artean: *Euli-giro*, parte naizen Kamikaz Kolektiboarekin sortutakoa, *Diálogo* besteak beste Gabriel Ocina aktorearekin batera sortutakoa, *Heriotza bikoitza (doble malta)* Jon Ander Alonso, Eneko Sagardoy, Zazpi t'erdia eta beste hainbat lagunekin sortutakoa edo guztietan pertsonalena den *Stereo*, bere lan kuttunetakoa.

Amancay Gaztañaga (Guayaquil-Ecuador, 1980) 2002 urtean lizentziatu zen Madrilgo R.E.S.A.D-en (Real Escuela Superior de Arte Dramático). Urte berdinean goi mailako ikasketak amaitzen ditu Madrilgo Amaniel kontserbatorioan, biolineko irakasle titulua eskuratuz. Peter Brook-en konpainiarekin bi master burutzen ditu Madrilan. Antzerki lanetan mundu osoan biran ibili da Lóm Imprebis taldearen “Quijote” antzeztzen bost urtez. Tanttakarekin “Sonujolearen semearen” munduan galdu da. Kamikaz kolektiboaren sortzaileetako bat izan da eta barruko mamuak atera ditu Uxue Alberdiren “Euli-giro” antzeztuz, “Uda gau bateko ametsean” ere ibili zen besteak beste... Naiz eta azken urteetan inspirazioa zuzendari bezala etorri zaion; Z U L O laburmetraia idatzi eta zuzendu du Erika Olaizolarekin batera, 2016an euskal antzerki topaketetan ikustelaren saria irabazi zuen “Sweeney” berak moldatu eta zuzenduriko antzezlanarekin. Gaur egun berak idatzi eta zuzendutako “Hysteria” antzezlanarekin dabil buru belarri. Telebistan, 3txulo saioan, 4ra ren pertsonaia antzeztzen du eta GRISES taldeko abeslaria da.

Iraia Elias (1980, Zarautz) 2001ean diplomatu zen irakasle bezala heziketa bereziko espezialitatean, Donostiako EHUn. Era berean antzerkiarekiko interesak Donostiako TAEn antzerki ikasketak egitera bultzatu zuen, baita bere interesekoak ziren adar ezberdinetako antzerki ikastaroak egitera ere han eta hemen. Azken esperientzia Buenos Airesen izan du 2016.urtean, Lecoq-en pedagogian oinarritzen den antzerki sorkuntza eta mugimenduzko CABUIA eskola internazionalan. Urte hauetan guztietan proiektu ezberdinetan hartu izan du parte eta proiektu kuttunen artean daude Ainhoa Alberdirekin batera sortutako TTAk TEATROA (2009) eta bertan eginiko lan ezberdinak. Hala nola *Eta Karmele? Eta oain ze?...Bestetik METROKOADROKA KOLEKTIBO*aren parte ere bada eta bertan sortuak ditu *Zertarako hegoak?* Eta *Gabrielen lekua* sentikaria besteak beste. Zineman berriz, Koldo Almandozen *Oreina* filmean parte hartu du berriki (2017) eta Asier Altunaren, *Amama* filmean (2015) aktore moduan jardun zuen, 2016ko Goya sarietan Aktore errebelazio moduan izendatua izan zelarik. Momentu honetan Chapito talde portugaldarrak zuzendu eta Vaiven konpainiak ekoizten duen *Sherezade eta tipularen azalak* lanarekin dabil.